

## PRESENTACIÓN, SIN OLVIDAR A J. PINATEL

Este número 13 de la revista *Eguzkilore. Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología* –dedicado a Joaquín Elósegui Amundarain por múltiples motivos, entre otros, por su apertura al mundo, superando toda endogamia, como patentiza, por ejemplo, su artículo publicado en *El Diario Vasco* el 30 de mayo de 1989, acerca de la dimensión internacional del Instituto Vasco de Criminología–, informa sobre las principales actividades académicas del IVAC-KREI a lo largo del año académico, agrupadas en cinco partes. El Curso sobre “*Inmigración Ilegal*”, organizado por el IVAC-KREI, en la Academia de la Policía Vasca, en Arkaute, Vitoria, abre esta publicación. Comienza con un artículo de César San Juan, Profesor de Psicología social de la UPV/EHU, sobre el control social y la reacción social ante la criminalidad de los inmigrantes, que nos introduce en este fenómeno, cada día de mayor preocupación. A continuación, Ignacio José Subijana Zunzunegui, Magistrado-Juez Decano de San Sebastián y Profesor del IVAC-KREI, aborda la inmigración ilegal desde la perspectiva del Derecho penal, analizando en especial lo relativo al tráfico de personas para su explotación sexual.

Seguidamente, las ponencias que se expusieron del 22 al 25 de noviembre de 1999, “*Los menores víctimas de la violencia*”, muestran, desde una perspectiva multi- e interdisciplinar, la trágica realidad de este tipo de delitos. Francisco Bueno Arús, Secretario General Técnico del Ministerio de Justicia, nos acerca a esta problemática explicando la tipología de víctimas infantiles y las formas de maltrato, especificando la victimación de las agresiones sexuales. Los daños psicológicos y las lesiones físicas son examinadas por Luis Miguel Querejeta, Director de la Clínica Médico-Forense de San Sebastián, que aborda estas cuestiones desde un punto de vista médico. La reforma experimentada por los delitos contra la libertad e indemnidad sexuales, en abril de 1999, es estudiada con detenimiento por Ignacio José Subijana que destaca la perspectiva victimológica de estos delitos, en concreto contra los menores. Asimismo, Jaime Tapia, Juez de Menores en Vitoria, estudia la protección del menor en la fase policial y judicial, centrándose especialmente en la relación víctimas-policía.

La tercera parte de esta publicación reúne las conferencias de los expertos que participaron en el Curso sobre “*Policía Judicial como forma de desarrollo de una Justicia más eficaz*”. Miguel Alonso Belza, Profesor de Derecho penal de la UPV/EHU, comienza con los aspectos más esenciales de la Ley Orgánica 19/1994, de Protección de Peritos y Testigos en causas criminales. Algunos aspectos de gran

interés en torno a la Policía Judicial son revisados por Luis Navajas Ramos, Fiscal Jefe de la Audiencia Provincial de Gipuzkoa, que busca respuestas a cuestiones tan relevantes como su control y dependencia. La Psicología del Testimonio es una disciplina sumamente compleja que Luis Miguel Querejeta analiza para esclarecer algunos puntos sobre la valoración de la credibilidad del testimonio. Este apartado concluye con la formulación de las conclusiones finales redactadas por José Luis de la Cuesta, Catedrático de Derecho penal de la UPV/EHU.

Más adelante, se publican dos artículos de interés criminológico. José Luis de la Cuesta apunta las medidas a adoptar, desde la Unión Europea y el Derecho interno de los Estados, para erradicar las conductas fraudulentas contra los intereses financieros. A continuación, Peter Waldmann, Catedrático de Sociología en la Universidad de Augsburgo, reflexiona sobre los procesos de orientación bélica frente a los de orientación pacífica, desde una perspectiva sociológica y criminológica.

En la última sección se recogen un par de artículos *en memoria de Jean Pinatel*, recordando su paradigmática trayectoria profesional. Así, Antonio Beristain, resalta la notable influencia de este eminente criminólogo en todo el mundo, al acogerse su doctrina como modelo o hipótesis de trabajos posteriores. Siguiendo la misma línea, Jocelyne Castaignède, Maître de Conférences en la Universidad de Pau y de los Países del Adour, muestra el acierto de Jean Pinatel, tanto en la teoría como en la práctica, a través de un recorrido por su extensa obra, destacando sus aportaciones a la Criminología Clínica.

Finalmente, se informa acerca del Acto Solemne de Clausura del Curso 1998-99, en el transcurso del cual pronunció la conferencia magistral Pedro de León y Francia, Presidente de la Comisión General de "Justicia y Paz" en España, y se procedió al nombramiento de Miembro de Honor del IVAC-KREI a Juan José Goiriena de Gandarias, ex-Rector de la UPV/EHU. La *Memoria anual* de actividades docentes e investigadoras del Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua, preparada por Inmaculada Iraola, y en la que se transcriben también las palabras de agradecimiento del Profesor José Luis Munoa en el homenaje que le rindieron sus colegas de la Sociedad Oftalmológica del Norte, cierra esta publicación.

Antes de poner el punto final a esta presentación, dirijo mi mirada a los cuadros de Oswaldo Guayasamín (Quito 1919), fallecido este año 1999 en Baltimore, con su vigorosa expresividad de rostros y cuerpos extenuados por toda suerte de victimaciones, pero también con sus manos rebosantes de fuerza y ternura para proteger y reparar a los más victimizados.

Donostia-San Sebastián, diciembre de 1999.

Antonio BERISTAIN  
Director del IVAC-KREI

## AURKEZPENA, J. PINATEL GOGOAN

Honako hau *Eguzkilore* aldizkariaren 13. alea da, *Kriminologiaren Euskal Institutuaren Koaderno*a alegia, eta Joaquín Elósegui Amundarain-i eskainita dago arrazoi askorengatik, beste batzuen artean, 1989.eko maiatzaren 30ean *El Diario Vasco*-n Kriminologiaren Euskal Institutuaren nazioarteko dimentsioari buruz argitaraturiko bere artikulua erakusten duen bezala, mundura izan zuen bere irekieragatik. Aldizkari honetan IVAC-KREIk antolatzen dituen jarduera akademiko garrantzitsuenen berri eman nahi dugu eta horretarako jarduerak bost multzotan batu ditugu. Gasteizen, Arkauten, IVAC-KREIk antolatu zuen “*Legezko inmigratioari*” buruzko ikastaroaren aipamenarekin hasten da 13.ale hau. César San Juan, UPV/EHUko Gizarte Psikologiako irakaslearen artikulua agertzen da aldizkariaren hasieran. Artikulu horretan, gero eta gehiago kezkatzen gaituen inmigranteen kriminalitateari buruz hitz egiten zaigu, kriminalitatearen aurrean gizarteak nola erantzuten duen eta zein den eta horren inguruan dagoen gizarte kontrola ere aipatzen du. Ondoren, Ignacio José Subijana Zunzunegui, Donostiako magistratua eta epaile-dekanoak eta IVAC-KREIko irakasleak legezko inmigratioari buruz hitz egiten digu, Subijana jaunak ordea, zigor zuzenbidearen ikuspuntua erakusten digu eta bereziki pertsonen trafikoari buruzko gaia jorratzen du, sexualki esplotatzeko ekartzen dituzten pertsonen trafikoari buruzko gaia alegia.

Ondoren, 1999ko azaroaren 22tik 25era arte, “*Adin txikikoak indarkeriaren biktima*” gaiaren inguruan egin ziren txostenen berri ematen da. Diziplina desberdinetatik eta hainbat ikuspegitik eraso horien zorigaitzoko errealitatea erakusten digute txosten horietan. Francisco Bueno Arús, Justizia Ministeritzako Idazkari tekniko nagusiak arazo horren nondik norakoak azaltzen dizkigu, biktima diren umeen tipologia zein den erakusten digu eta baita zein tratu txar mota erabiltzen diren ere, bereziki sexu erasoen inguruan hitz egiten digu. Kalte psikologikoak eta fisikoak Luis Miguel Querejeta jaunak aztertu ditu, Donostiako Mediku-forense klinikako zuzendariak, gai hori mediku ikuspegi batetik aztertzen ditu. Sexu askatasunaren aurkako delituek 1999ko apirilean izan zuten aldaketa zehaztasun handiz aztertu zuen Ignacio José Subijana jaunak, azterketa horretan biktimen tipologia da batez ere aztertzen dena eta bereziki adin txikikoen aurkako delituak. Halaber, Jaime Tapia, Gasteizko adin txikikoen epaileak, polizia eta epaiketa arloan adin txikikoek duten babesa aztertzen du, biktima eta polizien arteko harremana da aztergai nagusia.

Ale honen hirugarren atalean “*Polizia judiziala, justizia eraginkorragoa lortzeko bidea*” ikastaroan parte hartu zuten adituen hitzaldiak agertzen dira. Miguel

Alonso Belza, UPV/EHUko zigor zuzenbideko irakaslea, ekintza kriminaletan peritoak eta lekukoak babesteari buruzko 19/1994 lege Organikoaren arlo garrantzitsuekin hasten da. Epaitegietako poliziaren inguruko zenbait arlo garrantzitsu Luis Navajas Ramosek, Gipuzkoako Lurralde epaitegiko fiskalburuak, aztertu ditu. Azterketa horretan hainbat arlo garrantzitsuri buruz hitz egiten du hala nola, poliziaren kontrola eta menpekotasuna. Lekukotasunaren psikologia diziplina arrunt konplexua da eta Luis Miguel Querejetak lekukotasunaren egiazkotasunaren balorazioa argitzeko zenbait puntu aztertzen ditu. Atal honekin bukatzeko José Luis de la Cuesta, UPV/EHUko zigor zuzenbideko katedratikoak ondorioak azaltzen ditu.

Geroago *Jean Pinatelen oroimenez* izenpean artikulu bi biltzen dira, artikulu horietan lan ibilbide paradigmaticoa gogoratu zuen. Horrela ba, Antonio Beristainek kriminologo horrek mundu osoan izan duen eraginari buruz hitz egingo du, berak esandakoa geroagoko lanen eredu eta hipotesi gisa hartu baita. Aurrerakoaren bide-tik Jocelyne Castaignède, Pauko unibertsitatean eta Adour herrialdeetan Maître de Conférences denak, Jean Pinatelen lanaren ibilbide zabala eskainiko digu eta teoria zein praktikan nola asmatu duen adieraziko digu, batez ere kriminologia klinikoan egindako ekarpenak nabarmentzen ditu Jocelyne Castaignèdek.

Azken arlo honetan kriminologia aldetik interesa duten zenbait artikulu agertzen dira. Finantza interesen inguruan iruzurrik ez egiteko Europako Elkartek eta Estatuon barneko zuzenbideak hartu beharreko neurriak aipatzen ditu José Luis de la Cuestak. “Justizia eta bakea” Espainian, batzorde orokorraren buruak, Pedro León y Franciak, 1998-99ko ikasturtearen bukaera ekitaldian Justizia eta Bakerako kultura baten alde lan egitera bultzatzen gaitu. Ondoren, Peter Waldmann, Augsburgoko unibertsitateko soziologia katedradunak orientabide gisa guda duten prozesuei eta orientabide gisa bakea duten prozesuei buruzko hausnarketa eskaintzen du, guztia soziologia eta kriminologiaren ikuspuntutik. Iparraldeko Oftalmologia Elkarteko kide-ek egin zioten omenaldian José Luis Munoa irakasleak emandako esker oneko hitzak ere transkribatu dira.

Azkenez, 1998-99 ikastaroaren bukaera ematen dion ekitaldia aipatzen da. Ekitaldi horretan IVAC-KREIko ohorezko kide gisa Juan José Goiriena de Gandarias izendatu zuten, UPV/EHUko Errektore ohia. Ale honen bukaeran Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutuaren hezkuntza jarduera eta ikerketei buruzko *urteko memoria* agertzen da, Inmaculada Iraolak egindako memoria.

Aurkezpen honekin bukatu aurretik, aurten hil den Oswaldo Guayasamín (Quito 1919), koadroei buruz zertxobait esan nahi nuke. Bere koadroetan biktimak izandakoen aurpegi eta gorpuak espresibitate handiz erakusten dizkigu baina aldi berean biktima izan direnak babestu eta haiei laguntzeko indar eta gozotasun handia eskaintzen duten eskuak ditu.

Donostian 1999ko abenduan.

Antonio BERISTAIN  
IVAC-KREIko Zuzendaria